

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

4188

EBAZPENA, 2019ko irailaren 9koa, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita noiz argitaratu den Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean, ekainaren 27ko 7/2019 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin bat etorrira, zenbait kide Ertzaintzako karrerako funtzionario izendatzeari buruzko ebazpena.

Euskal Herriko Poliziaren Legearen bosgarren aldaketari buruzko ekainaren 27ko 7/2019 Legearen azken xedapenetako seigarrenean 3. apartatuan ezarritakoarekin bat etorriz, eta Segurtasun Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko apirilaren 11ko 83/2017 Dekretuaren (apirilaren 2ko 60/2019 Dekretuaren bidez aldatua) 9. artikulua ematen dizkidan eskumenak direla bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jakinarazten da 2019ko irailaren 6an argitaratu dela Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2019ko irailaren 6ko Ebazpena, Euskal Herriko Poliziaren Legearen bosgarren aldaketari buruzko ekainaren 27ko 7/2019 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin bat etorrira zenbait kide oinarriko eskalako agente kategoriarekin Ertzaintzako karrerako funtzionario izendatzeari buruzkoa.

Bigarrena.– Ebazpen honetan ez da amaitzen administrazio-bidea, eta interesdunek, haren kontra, gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioke Segurtasuneko sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 9a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.